

'Gure eskolaren' aldeko manifestazioa larunbatean

■ Langile, Elizatxo eta Urumea LHk bat egin dute manifestaziorako deiarekin
■ Langile ikastolak, Doberak eta AEKk autobusak jarri dituzte Bilbora joateko.



Elizatzoko ikasleak Lizarragako eskolan, lanean.

PPko gobernuak hezkuntzan egin nahi dituen aldaketak salatzeko, manifestazioa antolatu dute Sortzen-Ikasbatuazek, Ikastolen Elkarteak eta eskola publikoetako gurasoek. PNV, EH, EA, IU-EB, ELA, LAB, STEE-EILAS... bat egin dute.

IKASTETXEEN IRITZIA
Langile, Elizatxo eta Urumea LHk bat egin dute manifestuarekin; Langilek guraso eta ikasleei manifestaziora joateko dei egin die, eta bi autobus jarri ditu. Elizatzok ere guraso eta ikasleei Bilbora joateko deia

luzatu diete. Hernanin AEK, EHE, Dobera eta Udal euskaltegiak ere bat egin dute.

BILBORA AUTOBUSAK
Langilek ikastetxeko ikasle, irakasle eta gurasoentzat antolatu ditu autobusak; Dobera eta AEKk joan nahi duen guztiarentzat: 16:00etan Atsegindegitik irtengo dira; Txartelak 1100 pezatan daude Doberako eta AEKko lokaletan. Manifestazioa Bilboko Eliptika plazatik irtengo da bihar, larunbata, arratsaldeko 17:00etan. □

NOLAKO ESKOLA ESKATZEN DA

- Demokratikoa antolaketan.
- Lekuan lekuko inguruan errotua.
- Modernoa: bertakoa eta unibertsala.
- Berdintasunean oinarritua.
- Kultura ezberdinak biltzen dituena.
- Bere legedi propioa duena.

■ BI BITAKO ERREMONTE TXAPELKETA

Bitoria-Eizagirre 40 Elizalde-Lizaso 23

■ Txapelketa atzo hasi zen ■ Galarretan ostegunetan izango dira partiduak.

OTSAIL erdirarte, zortzi bikote neurtuko dira Erremonte Txapelketan, Galarretan eta Euskalen.

A Taldean: Ezkurra-Etxeberria II, Zeberio II-Auzmendi, Altuna I-Etxabe eta Matxin-Iriarte.

B Taldean: Altuna II-Txikuri, Elizalde-Lizaso, Urretabizkaia I-Aizpuru eta Bitoria-Eizagirre. □

■ PELOTA

Bost hernaniar Gipuzkoako finaletan

■ Gaur jubenilak paleta goman eta eskuz, buruz buru, Arrasaten ■ Igandean, paleta goman, Donostian.



Amaia Martinez eta Eli Lasa finalean izango dira, igandean.

OSTIRALEAN Hernaniko Hoz eta Bermejok Lizartzako taldearen kontra dute finala, jubeniletan, paleta goman. Eskuz banaka, jubenil mailan, Yubero Bergara taldeko pelotariaren kontra neurtuko da. Bi partiduak 20:00etan Arrasaten.

IGANDEAN ATANO III-AN Hernaniko taldeko Lasa eta Martinezek Intxaurrendoko taldearen kontra jokatu dute, paleta goman. Partidua goizeko 11:00etan hasiko da. Larunbatean Hernanin izango dira partiduak, 16:15etan. □

Ura moztuko dute larunbat gauetik igande goizera

■ Kale eta auzo batzuetan moztuko dute, obrak medio.

FLORIDA auzoan, Gartzia Goldaraz kalean, Mañe i Flaquer plazan, Sagastialde auzoan, Sagastialdeberri auzoan, Karmelo Labaka kalean, Perkaiztegi kalean, Antziola

auzoan, Sorgintxulo auzoan, Latxunbeberri auzoan, Marieluts auzoan eta Elkano kaleko 16 eta 18an ura moztuko dute larunbata gauetik igande goizeko 08:00etara. □

ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

'X men'

Ume eta helduentzako. Ostirala: 22:30. Larunbata: 19:30-22:30. Igandea: 19:30.

JANTZI DENDA
AMBOTO
GABONETAKO KANPAINA
%25eko Beherapen bereziak
Nagusia 54 - Tel. 943 552 340 HERNANI

BADATOR OLENTZERO, BADATOR
Tximolola
Txirrita, 10 - 943 552395 - HERNANI
ZATOZ TXIMELETARA ZURE
OPARIAK AUKERATZERA

Allianz
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Tel.: 943 557 326
656 735 109

MUEBLES HERNANI
Esposizio aldaketagatik,
Beherapen bereziak.
HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

**TXEMA
TABERNA**

Izpezua 19
HERNANI
Tel. 943 55 10 12

Skoda Fabia
Etorriaren jendearentzako
FABIA bat 1.375.000 ptatik.* (8.263,99 euro*)
* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. *Skoda Fabia Classic 1.4 60 CV, Garrantzi bereziak eskaintza bereziak: plana barne. Stockeko autoentzat baliozgarria. 1 euro=166,386 pztta.
MENABI
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

Urumea ikastolan irratsaioa egiten dute goizero

■ Umeak bapatean hizketan ohitzea da helburuetako bat ■ Euskaraz, gaztele-raz eta ingelesez egiten dute ■ FM 107an entzuten da Hernani osoan.



Urumeako ikasleak irrati programa egiten, atzo, koadernoia eta Kronika eskuetan dutela.

EGUNERO 08:30etatik 08:45-etara, Urumea ikastolako umeak irrati programa egiten dute, orain zazpi urte hasita. Programazioan denetik sartzen dute: herriko eta kanpoko albisteak, elkarrizketak, erreportaiak, horoskopoa, txistak, inkestak, agenda...

ASTERO GELA BATEK
Astero gela bati dagokio pro-

grama egitea. Gelan bost talde egin eta, txandan-txandan, goizero talde batek egiten du. Normalean, *Kronika* ateratzen den egunetan euskaraz eta besteetan gaztelez eta ingelesez.

ENTZUN ETA AZTERTU
Urumeako ikasle guztiek entzuten dute eta, entzun ondoren nola joan den ikusi: zer egin da ondo, zertan hutsegina da...

Ondo eta erraz hitz egiten ikasteko ez ezik, gauza gehiagoerako ere balio du: ikasleek komunikabide bat erabiltzen jakiteko, eguneroko bizitza gertutik jarraitzeko, ikasle-irakasle arteko talde lana indartzeko.

ESPERIENTZI ONA
Zazpi urte eta gero, gustora daude: "esperientziak esan digu oso bide onetik goazela." □



Luis Calvoren erakusketa Biterin

ARTISTA lezoarrak bere kuadro eta eskulturak Biterin ditu hilaren hamaikaz gero, eta hogeitabirarte. Surrealismoa gehiago gustatzen bazaio ere gehiago saltzen ditu paisaia "normalak". 17 urte darrazki pintatzen eta 3 erakusketak egiten. Hernanik zortea ematen omen dio. □

ASTEBURUKO PARTIDUAK (ESKOLARTEKO KIROLA)

LARUNBATA

ESKUBALOA

Mutil alebinak: (Urnietan) Elizatxo - Urumea

BOLEIBOLA

Neska kadeteak: (Donostian) Santo Tomas - Langile
Neska infantilak: (11:00etan Kirold.) Urumea-Langile

Neska alebinak: (11:00etan Kirold.) Langile A-Elizatxo A

Neska alebinak: (11:30etan Kirold.) Elizatxo B-Urumea

FUTBOLA

Mutil infantilak: (09:00etan Zubipen) Langile-Basajaun
Mutil infantilak: (Andoainen) Kuluxka-Urumea

SASKIBALOA

Alebinak: (09:15etan Kirold.) Inmaculada-Mundaiz B
Alebinak: (10:15etan Kirold.) Langile A-Catalina Erauso
Alebinak: (10:15etan Kirold.) Langile B-Herrera

PELOTA

Infantilak:

(09:20etan Kirold.) Langile 1-Urumea 1
Infantilak: (09:40etan Kirold.) Langile 2-Elizatxo 3
Alebinak: (10:00etan Kirold.) Elizatxo 1-Urumea 1
Alebinak: (10:20etan Kirold.) Langile 2-Langile 3
Alebinak: (Andoainen) Andoango B-Langile



ELUTXETA

Sagardotegia Erretegia



Oztaran Bailara 20130 URNIETA

Barrikotea

Mañukorta eta Larrañaga

bertsolariekin.

Abenduak 16, larunbata. 20:00etatik aurrera.

Izena emateko:

Tel. 943 55 69 81

ELKERRO FRUTAK

Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:

☎ 943 33 32 75

Antziola 1, HERNANI

HITZ BITAN

✓ LIZEAGA

Auzo elkarteko bilera bihar. Lizeagako auzo elkarteak zuzendaritza eta lehendakari berria aukeratzeko bilera egingo du larunbatean. Bilera, auzo elkarteko lokalean bertan da, eguerdiko 12:00etan.

✓ KARABEL

Pintura txapelketa larunbatean. Goizeko 09:30etatik aurrera, Hernaiko umeak Karabelen arituko dira zeinek marrazki politiagoa egin. Hartu beren paper eta pinturak, eta hantxe arituko dira kalean. Idazlanak, berriz, dagoeneko eginak daude eta zeinek irabazi duen erabakitzea falta da. Bestalde, igandean herri krossa jokatu da gazte eta helduentzat. Guztia Karabelgo auzo elkarteak antolatzen du eta udalak lagundu.



Karebelen gazte zirenek ere badakite pintatzen

✓ OSINAGA

Mus txapelketa igandean Arratsaldeko lauetan hasita, Osinagako 10garren Mus Txapelketa jokatu dute, Eizmendi sagardotegian. Izena ematea: 1500 Pta bikoteko. Sariak: Lehenengoak, txapela, txerria edo bere balioa dirutan; bigarrenak, arkumea; hirugarrenak, txuletak; eta laugarrenak, Gabonetako lotea. Auzoko sagardotegiek lagundu dute txapelketa hau antolatzen.

✓ ANGEL PIKABEA

Ereñotzuko presoak kartzelaz aldatu dute. Orain artean Frantziako La Santé espetxean zegoen, eta asteartean Osny-ra eraman zuten.

✓ TARTLA DANTZA TALDEA

Dantza ikuskizuna Biterin igandean. Herriko dantza taldeak Gabonetako dantza saioa prestatu du datorren igande eguerdirako. 12:00etan hasi eta, ekitaldi bukaeran, Eguberrietako saskia zozketatuko. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2): 11:30etan: Mikel Peruarenarekin hizketan: Batasuna prozesua. 12:10etan: Karabelgo auzo elkarteko igandeko krossaren berri emango dute. 12:25etan: Bilboko manifestazioaren inguruan Langile ikastolakoekin.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

☛ Eguez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
☛ Gaez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582



Laguntzaile:

HERNANIKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak